

Hainbat lagun aterako dira kantari Agate Deunaren bezperan

13. orrialdea

Iraia Garcia Bizkaiko kros txapeldun, Aitor Artaraz azpitzapeldun

Iraia Garciak Bizkaiko Kros txapela irabazi eta laugarren egin eban Euskadiko Txapelketan. Onditx Iturbe be podiumean egon zan hirugarren eginda. Gazte mailan, Aitor Artaraz Bediako izan zan txapeldunordea Bizkaikoan. 10. orrialdea



Zine italiarra hartuko dau gaitzat Igorreko Zine-klubak

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

245

2016ko zezeilaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Kultura dinamizetako prozesua abian Artean



Arteako Kultur Etxea.

Arteko Udalak herriko kultura dinamizatu guran, prozesu parte hartzailea ipiniko dau abian Alex Carrascosaren gidaritzapean. Prozesu honen ondorioz, Kultur Etxea berrantolatu eta kalidade handiagoko kultur ekintzak antolatuko ditue. Proiektuak lau fase daukaz: Gogoia, Abian, Bidean eta Artean izenekoak. Kirol-kultur ekintzak, jai parte-hartzaileak, alkarteen ekitaldiak, ohitura eta tradiziozko ospakizunak, kultura eta historia ondarea, ingurune naturala, eskolaz kanpoko jarduerak eta Kultur Etxea landuko dira.

Alex Carrascosak parte hartze prozesuak gidatu eta erretzen ditu arte plastikoak eta antzerkia erabiliz. Carrascosaren arabera, artegitza sano inportantea da daukagun errealidadea identifiketako zein gura dogun errealidadea irudikatze. 5. eta 16. orrialdeak

Mankomunidadeko aurrekontuak onartuta



Arriatiako Udalen Mankomunidadeko aurrekontuak ago batez onartu ziran urtailaren 27an, gastuak bananduteko azken orduko akordio bateri esker. Aurrekontuan, termino konparatiboetan, % 2,43ko murrizketea egon da 2015eko hasierako

aurrekontuagaz alderatuta, baina eutsi egiten jakie Mankomunidadeak esparru guztietan emoten dituan zerbitzu guztiai. Gizarte Ekintzako partidea % 23 handitu da; batez be, Gizartekutxari, etxez etxeko laguntzeari, jagokon funtsa. 5. orrialdea

ARRATIA

Panpa bedarra Arratian hedatzen



Arratian gero eta zabalduago dago Cortaderia Selloana edo panpa bedarra izeneko landare inbaditzailea. Espezie arriskutsuetako katalogoan dago eta lur jaubeak landare honetatik libre euki behar dabez lurak. Espezie inbaditzaileak leku bateko biodiversidadea galtzea dakarre. Beste landare inbaditzaile batzuk be badagoz Arratian, eukalipto berbarako. 8. eta 9. orrialdeak

ARRATIA

Ekonomia dinamizauko dau Errotak

Errota Plataforma publiko pribaduak Arratiako garapen bizigarria eta jasagarria dauka helburu. Jentaurerako aurkezpena egin eban Igorren eta arratiarrai proiektuan parte hartzeako gonbidapena egin deutse antolatzaileak.

Jakintza arloa, sektore publikoa, sektore pribadua eta gizarte eragileak dinamizauko dabe Arratiako ingurune sozio-ekonomikoa bertoko ondarea, baliabideak eta jentearen konpetentziak erabiliz. Hasteko eskualdeko errealidadearen diagnostikoa egingo dabe. 5. orrialdea



IGORRE

Mobilizazioak Batzen gertatutako eraso sexistaren kontra

Batz enpresako andren aldageletan kamara bat topau eban behargin batek eta Ertzaintzak bertan behar egiten dauan gizonezko bat inputau eban, intimidadearen kontrako delitua egotzita. Noka talde feministak deituta urtailaren 21ean, alkarretaratzea egon zan Igorren, gertatutako eraso sexista salatu eta biktimai alkartasuna adirazoteko.

Gaubeko txandako bost andrak ipini dabe salaketea. 7. orrialdea

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

ARRATIARRAK FILIPINETAN XX. MENDEAN (I)

Orain dala ehun urte gitxi gorabehera hainbat bizkaitarrek alde egin eben urrineko Filipinak isletara. Euren artean arratiar batzuk egon ziran. Filipinak, espainiar inperio zaharren azken lurrak, Ameriketako Estatu Batuetako lurralde kolonialak bihurtu ziran orduan. Espainiar enpresarioak, barriz, bertan gelditu ziran, negozioak egiten iparramerikarrakaz. Zergaitik? Amerikar merkadu babestuan egiten ziran salmentak irabazi ederrak emoten ebezelako. Egoera ekonomiko ona aprobetxauz, jente gaztea hasi zan joaten Filipinetara. Gazteak ez eben gura soldadiska egitera joan eta, azken baten, gerra batera: 1909ko urtean, "Melillako Gerrara", eta gero, 1911.-1927. urteetan, Marokoko iparraldeko mendietan sortu

zan "Afrikako Gerrara". Heriotzatik iges eginez, euskaldunak eta katoluniarak Ozeano Barean dagozan Filipinak isla tropikaletara jo eben.

Bizkaitar asko Negros deitutako islara heldu ziran. Negros islearen zabalera Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeen bestekoa da. Gehienak azukera-kainaberearen inguruan hasi ziran beharrean, landare tropikal honek errentagaritasun komertziala emoten ebalako. Besteak, barriz, tabakoriaren ustiapen edo esplotazio komertzialean, Tabacalera izeneko enpresan. Azukera-kainaberearen negozioan sartu ziran batzuk "hazienda" edo finka handien jaubeak egin ziran. Ikusi daiguzan II. Mundu Gerraren ostean, 1946. urtearen inguruan, filipinarrak independentzia politikoa

lortu ebenean, nortzuk ziran han bizirik egozan arratiarrak (ezin dogu aitzu 1942-45eko urteetan japoniar inbaditzaileen menpean egon ziralako Filipinak eta hainbat izan ziralako japoniarrek egindako apurketak eta hilketa krudelak isletako biztanleen artean): "Hacienda Basconia"n, San Karlos herrian, bizi zan Bediako Felix Artebaro Agirre. Bere anaia Esteban "Hacienda Euzkera" izenekoan egoan biziten eta beharrean. "Hacienda Manuca"n, Isabela herrian, bizi ziran Jesus Isasi Larrabide, bere andrea Maria Aldekoa, eta Klaudio Zuloaga Zabala jaubeak; gainera, Balentin Bilbao Elxpe behargina. Danak zeberiozarrak. "Hacienda Fe"n, La Carlota herrian, bizi ziran Juan Uriarte Zamakona, bere andrea Aurelia Barruetabeña Areatzakoak eta euren seme biak, Higinio eta Julian. Haziendea euren zan. Bizimodua baina oso bakartia izaten



zan, distantzia handiak egoten ziralako hazienden artean. Lurreko komunikazioak edo bideak, bestalde, sano txarrak izaten ziran.

Oharra: Hazienden gaineko datuak Rikardo Larrabeiti ikerlariak jasotakoak dira. Berari eskerrak.

Angel Larrea Beobide

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zezeilaren 1etik 7ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 8tik 14ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 15etik 21era

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 673 92 61

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Vicesecretaría de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ZEURE BERBEA

Zero tolerantzia nesken mutilazino genitalaren aurrean

Zezeilaren 6an Nesken Mutilazino Genitalaren aurreko Tolerantzia ezaren Nazinoarteko Eguna ospatzen da.

Euskadin 800 neska inguru dago mutilazino genitala sufriduteko arriskuan, Nesken Mutilazino Genitala (NMG), ohikoa dan herrialdeetatik datozalako. Uda honetan presan irakurri dogu Arabako lau ahizpek mutilazino genitala sufridu ebela oporretan Malira egindako biajea. Euretako batek, 14 urtekoak egin eban salaketea.

Hau ez da topautako lehenengo kasua. Horregatik erakundeak protokoloak egiten dabiz praktika hau ebitau eta prebeniduteko. Horretarako neurri bat, ospitaleetan eta osasun zentroetan, bere sasoi mutilazino sufridu eban andrak topatzea da, euren alabak babestu ahal izateko.

NMG prebeniduteko erakundearen arteko protokoloa dauka Bilbok eta mutilazino sufridu daben andrak dira euren ingurukoak animetan dabezanak praktika honek amaituteko. Gainera, Bilbao-Basurto osasun erakundeak laguntza protokoloa dauka jarraibideak ezarri eta osasun eta gizarte profesionalen arteko koordinazioa sustatzeko.

Nesken Mutilazino Genitala herrialde batzuetako etnia batzuk, ez danak, egiten dabe eta andra afrikar askok urte luzeak daroiez praktika hau desagertu arazo guran. Eraginik handienak dituen faktoreak alde sozioekonomikoagaz lotuta dagoz, eta eskualde pobreenetan aukera gehiago dago mutilazino sufriduteko, baita nekazal eremuetan be. Atzerrira joandako populazioan NMGren prebalentziak gora egin dau. Gaur egun, gero eta adin txikiagoan egiten dira praktika honek, gero eta sekretismo handiagoagaz (lehen jaietan egiten ziran) eta NMGa gero eta medikalizautago dago.

Giza Eskubideak urratzen dituan praktika honen aurrean, Kataluniako osasun sistema publikoak mutilazino jasan daben neska eta andrai klitoria berregiten deutse. Ebaketea ginekologo eta zirujau plastikoak alkarlanean egiten dabe. Balio anatomiko eta funtzionala dauka, baina ez dau bermatzen sensibilitate errekuperauko danik.

Nesken Mutilazino Genitala andren kontrako muturreko indarkeria da. Andren sexualitatea kontrolatea dauka helburu, eta ondorio honek izaten ditu: plazer sexuala gixitu, koitoa praktikatzean mina, anorgasmia, bildurra eta hartu-emon sexualai uko egitea. Neska eta andren kontrako muturreko indarkeria da, eta prebeniduteko disziplinen arteko koordinazioa behar dau, Arabako lau neska gertatutakoa barriro ez gertatzeko.

IZASKUN ATUTXA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrik eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

ERETXIA

Gorputzean eta Nortasun Agirian idatzitako edadea



ANNA FREIXAS
Gerontologo feministea

Bizitza gero eta luzeagoa da eta hori erronkarik handienetakoa da gure gizartean; izan be, herrialde garatuetan populazioaren laurdenak 65 urte baino gehiago ditu. Errealidade honek, personak zaharkituz goiz emoten eban imajinario aldatutea eskatzen dau, edade guztietako jentarte bateri lekua egiteko.

Zahartzea lorpena da, garaipena, suertea. Ez da hondamendia. Zahartzearen lehengo ikuspegia; hau da, galtze, gaixotasun eta zerbaitasun prozesu sailhestezin moduan ulertuta, ezin da gaur egun mantentzen; ikusten dogulako, andra eta gizon zahar asko gizartearen partaide aktibo dirala eta euren bizitzak ondo eta modu autonomoan bizi dabezala, zahar-zahar egin arte. Holan, funtsezkoena ez da urte asko bizitza, urte horreek zelan bizi baino, osasuna, ekonomia, ondoizatea, gizarteratzea eta esangura personal, kultural eta politikoa kontuan hartuta.

Andren ikuspuntutik, zahartzea garrantzi handiko erronka izan daiteke, ze bizitzearen sasoi honeri aurrez aurre begiratzeko, lehenengotik egoera personalari begiratu behar deusagu aurrez aurre, eta askotan pobrezia eta menpekotasuneko egoera da hau. Gainera, moztorra kendu behar deutsegu sano eredu limitatzailei lotu gaituen agindu soziokulturalai. Izan be, agindu honek, giza garapenaren prozesu naturala errespetetan ez dabezan edertasun eta gaztetasun kontzeptuetara dagoz lotuta.

Androk, bizitzaren zikloan aurrera joan ahala, laguntza, babes eta alkatasunerako sare poderetsuak sortzen doguz. Adituak gara lagunen artean, auzokoen artean eta komunitate barruan hartu-

emonak sortzen eta mantentzen. Hartu-emon honek itzelezko laguntza emoten dabe urteen zehar gertatzen diran egoera latz eta galera aurre egiteko. Sare honek esker, androk aktibitate eta inplikazio handia lortzen dogu, bizimodu personalari zein komunitatearen zaintzari jaigokonean. Edadean aurrera joan ahala, bakardadea disfurtetan, baloretan eta defendiduten ikasten dogu. Bakardadea guretzat orotzapenentarako eta lasaitasunerako geure-geurea dan espazio bat da, eta familia eta lagunen urruneko konpainiak daukan balioa be ulertuten dogu orduan.

Androk sano jarkera aktiboa izaten dogu osasuna dala-eta, osasuna funtsezkotzat jotzen dogulako.

Holan, gorputzagaz kalte handia egin deuskun alienazio sozial eta kulturala bizi izan dogun arren -gizonen aldean txarrago jaten dogu, lo gixiagot egiten dogu, lan gehiago egiten dogu, astialdirako denpora gixiagot izaten dogu, eta estres, min eta ondoez gehiago-edadeko androk aktibo eta osasungarri mantentzen saiatzen gara. Ariketa fisikoa egiten dogu, jatekoa jagoten dogu, informazio osasungarria trukatzeko dogu, industria kosmetiko eta farmazeutikoen guzurren kontrako abiak emoten deusaguz alkarrerri eta entzun eta artatzen gaituen medikuen sareak osotuten doguz.

Eta amaitzeko, garrantzi handikoa iruditzen jata azpimarratzea, osasun mentala eta ondoizatearen indikadorea dan eta askotan kontuan hartzen ez dan elementu funtsezko bat: edadeko andrak barre egiten dabe. Andren barreak erakusten deusku ikasi dabela euren burua egoki kokatzen iragana eta etorkizunaren artean, eta euren bizitzaren balioa onartzen dabela eta perspektibegaz begiratzeko deusiela etorkizunari. Barre egiten dabe euren buruak libre eta hartu-emonetan dagozala jakinda. Hau da, euren buruak serio hartzen hasten dira.

Erredakzioan itzulita

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Hagin (I)



Agoaren barruan janaria mamurtuteko erabilten diran hazur txikiak hagin(ak) dira (agine(k), agoskatuta). Batuaz, aurrekoari hortz esaten jago eta atzeko zabalari, oster, hagin. Guk, barriz, holan bereiztuten doguz: hagin, aurrekoa, eta albo-hagin, atzekoa. Haginak lotuta honako berba honek be badakarguz: a) hagin-ertz (aginertza): haginaren alde zorrotza, jateko zatitutekoa; eta b) hagin-zabal (aginsabala): aurreko hagin oso bananduta, erdiko tarte handiagaz, dituan personea da.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Erredakzioan itzulita

MONDRAGON

LUMATUTEN

ARANTZA
ETXEBARRIA

Zaharrak barri

Gaur egun ez gara harritzen gure etxeetan administraziozko testuak euskeraz jasoten doguzanean. Guztiz normala egiten jaku hori holan izatea, administrazioa herritarrari begira dagoalako eta gurean hizkuntza ofizial bi daukaguzalako.

Baina hori ez zan beti horrela izan. *Euskara Foru Aldundien zirkularretan* liburua ikusi besterik ez dago. Horretan be egon ziran aitzindariak. Hain zuzen be, bat aitatzearren, Bizkaiko Foru Aldundian 1917an izentau eben lehen itzultzailea: Juan Luis Biziola. Izen hori ez da bape ezaguna izango askorentzat. Baina Otxandion jaiotako gizona izan zan Bizkaian itzulpen-gintza juridiko-administratiboaren protagonista nagusia. Zirkularrak, lege-testuak eta beste testu asko ekarri ebazan euskerara.

Kontua da itzultzaile eta zuzentzaile beharra ez zala ofizia-

la. Biziolak lan-ordutegitik kanpo egin behar ebazan lan horreek. Soldata berezirik be ez eukan behar horregaitik, diru-sari bat emotea onartu zan arte. Halanda ze, Biziolak 1919an dimisinoa aurkeztu eban idatziz, hiru errazoi emonda. Gaur egungo ikuspegitik, aitaturako errazoiak nahiko modernoak dira:

1. Gaztelaniaz sortutako testuak aton euskeratu behar ziran; eta testuak, askotan, oso korapilatsuak izaten ziran.

2. Lana horrenbestekoa izanda, diru-saria sano urria zan.

3. Euskerara itzultzea oso gatxa da, berbaz berba barik esanahiak itzultzea eskatzen dau eta.

"Aparte de esto, quien someramente conozca el Euzkera, se dará cuenta inmediatamente de las dificultades que lleva consigo toda traducción. El Euzkera y el castellano son dos idiomas de estructura completamente distinta, con giros y modismos que en nada se parecen. Requiere, por tanto, además del conocimiento de ambos idiomas (sobre todo el Euzkera, pues en cuanto al castellano hay buenos diccionarios) un hábito prolongado de traducción, para no incurrir en el feo pecado de cubrir el castellano con ropaje euzkérico, destruyendo completamente la idiosincrasia del Euzkera".

Beste arlo askotan lez, honetan be, zaharrak barri.

ZERTZEAN



JANIRE LOPEZ

Udabarria

Uudabarria aurrez aurre dauelakoan iheserako errepidea hartu dot, baina bidean kolpatu egin nau zure autoak eta bertan gelditu naz etzanda elurtza ganean odolusten.

Kirikiñoek beldurtutakoan nola arantzak ateratzen saiatu naz, baina erraietan untzatu jataz, ezten zorrotz pozointsuak barrurantz, haragi-bizian.

Itsutu egiten naute behe-lainoaren artetik zure argi piztu berriek. Erre egiten nau zure errukiak elur malutek zauri gordinetan beste.

Baina zugan igarri dot, baita, arbola hezeen usaina. Zugan da udabarria negua zuzterretatik erauzteko. Zugan dira nenufarrak, eta zingiratako apoen orroak.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredu ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Plastikoz edo zaborrez osotutako irla bat ei dago Ozeano Barean. Zaborrak, eta batez be plastikoak eta porlanak inguru naturalak kolonizatzen, estaltzen, hiltzen dabez. Kolonizazio hori, apenas igarri barik hasten dabe, apenas lekuri hartu barik, ez jagokien leku baten baina lar molestau barik, isil-isilik. Baina hori lehenengo pausua baino ez da. Gaixotasun larrien antzera, konturatu orduko dana dago kutsatuta.

Arratian baso eta zelai ugari daukaguz, plastiko eta porlanetik libre. Egurra da nagusi gure basoetan. Seinaleak be egurrezkoak dira mendiko bidekurutzetan. Baina lantzean behin, apenas igarri barik, egurrari jagokon lekuan porlana eta plastikoa topetan doguz.

Argazki hau Alzustan aterata dago. Konposta egiteko inausketa hondar birrinduak jasoteko lekuan baten batek zaborra itxi dau. Isil-isilik, lar molestau barik, apenas ez da igartzen eta.

Baina hori lehenengo pausua baino ez da.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisc.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

DIMA

Aurten be egingo da *Jentilak Diman* ikuskizuna



Igazko partaideak.

Argazkia: Berna Gomez.

Erredakzioa

Diman hasi dira *II. Jentilak Diman* ikuskizuna prestatzen. Igazko apirlean egin zan ekitaldiak itxitako ago zapore gozoak indartuta, ikuskizuna antolatzen dauan lantaldeak emon ditu ekitaldi barriari begira hasierako pausuak.

Ikuskizuna apirilaren 23an, zapatuz, izango da. Igaz ekitaldi bi egin baziran be (arrastian *Ibilaldi mitologikoa*, Baltzolako koben inguruan, eta gauean ikuskizuna herriko pelotalekuan), aurten gauekoa bakarrik egingo da. Soinu eta argi ikuskizuna izango da, eta

bertan antzerkia, musikea, jantzea eta abestiak buztartuko dira. Ikuskizunaren antolaketaz arduratzen dan herriko Txumulueta Kultur eta Kirol Elkarteko lantaldeak badaroz hile batzuk ikuskizuna prestatzen. Egunean zehar herria girotzeko heldu eta umeentzako ekitaldiak antolatuko ditue.

Ikuskizunean 100 persona inguruk hartuko dabe parte: honeetatik 30 inguru aktoreak izango dira, 20 bat jantzari, herriko korua osotuten daben 15 abeslari inguru... Igazko moduan, aurten be partaideak dimoztarrak izango dira.

ARTEA

Kultura dinamizetako prozesua ipiniko da abian



Arteako Kultur Etxea.

Erredakzioa

Arteako kultura dinamizau guran heritarren parte-hartze prozesua abiatuko dau Udalak, zezeiletik maiatzera bitartean. Prozesuaren helburuak dira ekintza kultural aberatsagoak antolatutea eta Kultur Etxea berrantolatzea, Arteako kultur alkarte eta eragileak txoko egokia izan dagien. Alex Carrascosak, artearen bidezko "Dia-Tekhne" metodologiaren sortzaileak, gidatuko dau prozesua. Aurkezpena zezeilaren 11n, 19:00etan Kultur Etxean izango da.

Kirol-kultur ekintzak, jai parte-

hartzailak, alkarteen ekitaldiak, ohitura eta tradiziozko ospakizunak, kultura eta historia ondarea, ingurune naturala, eskolaz kanpoko jarduerak eta Kultur Etxea landuko dira kultura dinamika honetan.

Egutegia

Dinamikeak lau atal izango ditu, Gogoia, Abian, Bidean eta Artean izenekoak. Gogoia atalak saio bakarra, zezeilaren 20an; Agian atalak saio bi, martiaren 5 eta 18an; Bidean-ek hiru saio, apirilaren 15, 23 eta 30ean eta, azkenik, Artean atalak saio bat izango dau maiatzaren 13an.

ARRATIA

AUMeko aurrekontuak ago batez onartuta, azken orduko aldaketa bateri esker

Erredakzioa

Urtilaren 27an, Arratiako Udalen Mankomunitateko Osoko Bilkurak ago batez onartu eban 2016ko aurrekontua. Azken orduko aldaketa batek ahalbideratu eban adostasuna. Aurrekontuak 4.369.999 euro kudeatzen ditu, holan bananduta: 2.472.245 euro Mankomunitatearentzat, eta 1.912.341 euro Arratiako Egoitza erakunde autonomoarentzat. Gizarte Ekintzako diru partidea % 23 handitu da.

Termino konparatiboetan, % 2,43ko murrizketa egon da 2015eko hasierako aurrekontuagaz alderatuta, baina eutsi egiten

jakie Mankomunitateak emoten dituan zerbitzu guztiai. Gizarte Ekintzako diru partidea 232.672,75 eurokoa da, igazkoa baino % 23 handiagoa. Batez be, Gizartekutxari, etxez etxeko laguntzea, jagokun funtsa handitu da.

Zerbitzu guztiai eutsi eta Gizarte Ekintzan hainbeste hazi arren, 2008tik gaur egunera arte udalen ekarpena % 30 murriztea lortu dala esan eban Migel Angel Etxebarria Mankomunitateko presidentek.

Gastuen banaketa justuagoa

Orain arte indarrean egoan Gizartekutxatik datorren diruaren banake-

teagaz desadostasuna adierazo eban Ubideko Arnasak eta EH Bilkur plenoan. Izan be, herri txikiak kaltetuten ebazan eredu horrek. 2015eko zemendian aurrekontua landuten hasi zan Mankomunitatea eta udalen gizarte gastuen banaketa justuago bat gauzatzeko, lau eredu proposatu ziran. Baina aurreko urteetako lango banaketeagaz aurkeztu ziran aurrekontuak bozkatzeko. Hata guzti be, Osoko Bilkuran, Ubideko Arnasa eta EH Bilduko alkateen eskariak entzun ondoren, aurretik proposatutako eredu hairetako bat apliketea onartu eban presidentek, danon aldeko botoak lortuz. "Atsegin handia da Mankomunitatean ordeztutako talde guztien adostasuna lortzea. Hilabete bi daroaguz ekarpenak bananduteko proposamen barri honetan lanean, Udal guztiak eroso sentidu daitezcan eta, gaurko Osoko Bilkuran legez, adostasuna lortzeako. Legegintzaldi honetan, baliabide ekonomiko gixiagogaz, zerbitzu gehiago eta kalidade handiagokoak eskeiniko doguz", azaldu eban.

Beste zerbitzuen gastuen banaketea aztertzeke konpromisoa be hartu eban Etxebarriak.



Aurrekontuetako Osoko Bilkura.

ARRATIA

Errota plataforma publiko pribaduak Arratia garatuteko egingo dau behar

Erredakzioa

Arratiako ingurune sozio-ekonomikoa modu bizigarri eta jasangarrian dinamizetako, jakintza, sektore publiko, sektore pribadu eta gizarte arloko eragileak batu dira Errota plataforman. "Hazi bategaz hasi gaitetzan" lemapean, urtilaren 21ean jentaurreko aurkezpena egin eban Igorreko Lasarte Aretoan. Lehenengo pausuak, Arratiako errealdadearen diagnostiko parte hartzailea, eragileen beharizanen identifikazioa, 2020rako erronken definizioa eta finanziaioa, forma juridikoa eta estatutuak definitutea izango dira.

Iratxe Etxebarria kazetariak egin ebazan aurkezle lanak eta Arratiako baliabideak aitatzen hasi eban ekitaldia. "Ondasun naturalak daukaguz. Mendez mende arbasoak eta guk geuk egindako ondarea" eta ondoizatea eta bizimodu hobea lortzeako kompetenziak badituala Arratiak esan eban. Proiektuaren lau hegale-tako -jakintza arloa, sektore publikoa,

sektore pribadua eta jentarte-eragileak euren helburuak azaldu ebazan ondoren. Jakintza arlotik, berbarako, Institutu, Zulaibar ikastetxe eta Lemoako eskolako ordezkariak esan eban euren artean eta beste eragileakaz hartu-emonak sendotu, kalidadezko hezkuntza emon eta beste ikastetxeak Errota proiektura konbidau gura ebela. Ondoren Ainhoa Arrizubieta Azaro Fundazioaren zuzendariak Lea-Artibain garapenerako egindako beharra aurkeztu eban.

Arratiako Guggenheim

Personak erdigunean ipinita, jasangarritasuna eta parekidetasuna jagonda, epe luzera begira eta alkarlanean, langabezia eta prekariedade gaintitu eta Arratia garapenera eroan gura dau Errotak. Eta ez edozelango garapenera gainera, "Arratiako Guggenheima" izatea gura dabe eragileak. Hori lortzeako, jenteari errotari izateko, hau da, proiektuan parte hartzeako, konbitea egin eutseen antolatzaileak bertaratutakoai.



ARANTZAZU

Herriko
Tabernea
alokairuan

Erredakzinoa

Arantzazuko Herriko Tabernea alokairuan hartzeako pleguak eskuragarri dagoz udaletxean. Herriko Tabernea eta jantokia emongo dira alokairuan. Kontratu urtebeterako izango da, urte bira luzatu daitekena eta ordaindu beharreko errentea 30 euro gehi BEZ-a. Esleipena egiteko Udalak kontuan izango dauz esperientzia profesionala % 30 eta ekintza eta zerbitzuen proiektua % 70. Lehiakideak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia agertzen danetik hogeitun egun daukiez eskeintza eta agiriak aurkeztu ahal izateko.

BEDIA

Bardintasanaren
aldeko
Euskadiko
udalerrien
sarera atxikitu
da Udala

Erredakzinoa

Bediako Udala Berdinsarean sartu da; hau da, Bardintasanaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Sarean. Bedia izan da sarean sartzean dan Arratiako lehenengo udalerria. Berdinsarea 60 udalerri osotuten dabe eta sarearen estaldura Euskadiko biztanleen % 75,3ra heltzean da gaur egun. Sarearen helburua udaletatik kudeatutako programa eta zerbitzuak bultzatu, indartu, koordinatu eta ebaluatzea da.

Berdinsarearen bidez egindako sareko lanaren bitartez, bardintasanaren alde eta andreganako indarkeriaren kontrako burrukan udalen erantzunaren eraginkortasuna hobetu gura dabe, eta udalen eta udalez gairiko beste erakundearen artean lotura lanak egin.



DIMA

Plan Finantziario barik, aurrekontuetarako,
askatasun handiagoa izan dau Dimak

Erredakzinoa

Hainbat urte eta gero Udalaren egoera ekonomikoa normalizautan, Diman indarrean egoan Doitze Plana bertan behera geratuko da. Honek eragin zuzena izan dau 2016ko aurrekontuetan. Aurrekontuok urtailaren 29an onartu ziran EH Bilduko aldeko botoakaz eta EAJ-PNVko abstentzioagaz. Gizarte ekintzan, euskeran, kulturaren eta kiroltan igarriko da batez be egoera finantziarioa hobetu dala.

2016ko aurrekontua 1.472.981 eurokoa da, 2015ekoa baino % 3 gitiago, baina Udalak askatasun handiagoa izango dau aurrekontuaren ejekuzioan aurten ez dalako Plan Finantziario egin behar. "2017rako ziran helburuak 2015ean lortu dira. 2016ko aurrekontuak, aurrekontuen egonkortasuna eta finantza iraunkortasun legea eta gastu araua beteten dauz eta horregaitik ez dogu Plan Finantziario egin behar" azaldu deutso BEGITURI Nekane Intxaurtza Dimako alkateak.

Alkarteentzako diru gehiago

2016an transferentzia arruntak; hau da, diru laguntzak % 11,6 igoko dira. Atzen zortzi urteetan izandako egoera ekonomikoa larrigaitik izoztuta egon dira eta kasu batzuetan, bajatu be egin dira. "Kultura eta kiroltako aurrekontu gehiena alkatereengana bideratzen da, herrian antolatzen diran ekintzetatik % 90etik gora eurek bideratzen dituelako. Baina baita eskolara, ludotekara eta udalak antolatzen dituan ekintzetara be". Aurten, Gizarte ekintzako diru partidea 4.120 eurotik, 6.000 eurora pasatu da; euskera eta kulturakoa 13.000 eurotik 23.000ra eta kiroltako 10.500 eurotik 13.000 eurora. Auzoetara abiadura handiko internet zerbitzua eroateko 30.000 euro dagoz.

Inbersinoai jagokienean, Indusiko Saneamentua, ur hornidura eta bide konponketarako izango da batez be dirua.

Herriko plaza oinezkoentzat egokitzeko parte hartze prozesua ipiniko dabe martxan eta horretarako 8.000 euro dagoz. EAJ-PNVrentzat herriko plaza oinezkoentzat egokitzea "estrategikoa" da eta lehentasuna dauka. Horregaitik beste partida batzuk gitxitu eta horretarako 15.000 euro gehiago bideratzea proposatzen eben aurkeztutako zuzenketetan. Zuzenketok ez ziran onartu eta horregaitik abstenidu ziran.

Aurrera begira

2017ko aurrekontuak prestatzeko parte hartze prozesua zabalduko asmoa adierazo eban alkateak, "herriar guztien artean aurrekontu hobeak aterako diralako".



Aurrekontuetako Osoko Bilkura.

Epe luzera begira barriz, Eusko Jaurlaritzegaz dabiz hartu-emontan eskolea handitzearen proiektua aurrera aterateko, legegaldi honetan eginda edo behintzat bideratuta itxeko asmoagaz.

AREATZA

Konsultategi
barria laster
martxan

Erredakzinoa

Zezeilaren 15ean Akastan kaleko 34. zenbakian dagoan Areatzako Konsultategi barriak zabalduko dauz ateak. Inaugurazino ekitaldi ofiziala, barriz, hilaren 4an izango da, eguerdiko 12:00etan. Konsultategiaren kanpokaldean hiru aparkaleku plaza prestatu dira erabiltzaileak ibilgailuak bertan aparketako Konsultategia martxan dagoan orduetan eta errotazino sisteman. Osasun zentrorra doazenak bakarrik erabili ahal izango dabez. Beharginentzako beste bi aparkaleku prestatu dira.

EDUKIONTZI MARROIAN...

POLTSA
KONPOSTAGARRIAK
BAKARRIK

Gogoratu: ezin da plastikozko
poltsarik erabili



ZELAN LORTU:

- **ARRATIAKO DENDETAN EROSKETAK EGITERAKOAN:** erosketaren poltsa konpostagarria (berdea).
- **MANKOMUNITATEAN ETA UDALETXEETAN:** poltsa konpostagarriak (50 unitateko paketeak).

MARROIRA APUNTA ZAITEZ!!
MANKOMUNITATEAN EDO ZURE UDALETXEAN
Bertan, behar den materiala jaso dezakezu: kuboak, poltsak, giltza...

Informazio gehiago 94 631 17 17 telefonoan

IGORRE

Igorreko jaietako Kartel Lehiaketeta

Erredakzioa

Igorreko Jai Batzordeak antolatutako jaietako Kartel Lehiaketan parte hartzeako, martiaren 11ra arte aurkeztu daitezke lanak Igorreko udaletxeko erregistroan. Lanok aurkeztutako Igorrekoa izan behar da eta euskarria, papezkoa bada, DIN A3 tamainuan aurkeztu behar da eta ordenagailuz eginda badago CDa be entregau behar da. Proiektu irabazlea jaietako kartelean eta jai egitarauaren azalean agertuko da. Saria, jaiak antolatuten ibili diran komertzioetan gastetako 400 eurotako bonoa da.

Partaideak kartel bi aurkeztu behar ditue, bata testuagaz eta bestea diseinuagaz, testu barik. Kartelerako testua hau da: Igorreko jaiak 2016 Bagilaren 10etik 19ra.



Aurkeztutako kartelak Igorreko Kultur Etxeko hall-ean ipiniko dira igorretarrak botoa emon dagien apirilaren 4ra arte eta hurrengo egunean jakinarazoko da zein izan dan irabazlea.

IGORRE

Udalak mozinoa onartu dau Jon Bilbaori babes politikoa emoteko

Erredakzioa

Arrano Libre alkartearen mozinoa ago batez onartu eban Igorreko Udalak urtailaren 18ko Osoko Bilkuran. Mozino honetan Udalak Jon Bilbaoren kontra dagozan zigorrak bertan behera geratu daitezala exijiduten dau.

Orain dala lau urte, Polizia Nazionalak Jon Bilbaori 3001 euroko isuna eta kirol instalakuntzetara sei hilabetez sartzeako debekua ipini eutsan arrano baltza eukan bufanda bat soinean eroan ebalako Athleticen Vicente Calderon futbol zelaian jokaturako finalean.

Bide administratibo guztiak erabili ondoren, epaiketara joko dau Jon Bilbaok. Hori dala-eta, Arrano Libre alkarreak kanpaina bat ipini dau abian hiru helburugaz: jurisprudentzia sortzean laguntzea epaiketea bera irabaziz, atxekimendua adierazoteko sinadura bilketea eta kanpaina ekonomikoa isuna bera eta epaiketa

gastuak pagetako.

Atxekimendua lortzeako, Igorreko Udalari Jon Bilbaori babes politikoa emoteko eskatu eutsien mozino baten bitartez. Ago batez onartu zan testu hau: "Udal batza honek arrano baltzaren erabile-rea begi honez ikusten dau, horregaitik ez dau inolako atxakiarik onartzen gure herrikidea dan Jon Bilbao zigortzeko. Bere kontra dagozan zigorrak bertan behera geratu daitezala exijiduten dau".



IGORRE

Alkarretaratzea egin eben Igorren gertatutako eraso sexistea salatuteko



Konzentrazinoko irudia.

Erredakzioa

Batz enpresako andren aldageletan kamara bat topau eban behargin batek eta Ertzaintzak bertan behar egiten dauan gizonezko bat inputau eban, intimidadearen kontrako delitua egotzita. Gaueko txandan behar egiten daben bost andrak salaketea ipini dabe.

Hori dala eta, Noka talde feministak deituta, urtailaren 21ean, "Utzi

bakean emakumeen gorputzak eta bizitzak" inoan pankartearen atzean erakundeetako ordezkariek, talde feministetako aktibistak, Batzoko beharginak eta herritar asko batu ziran Igorren eraso sexistea salatu eta biktimai alkartasuna adierazoteko. Batz Kooperatiban, kamarea topau zan momentutik, eraso sexisten kontrako protokoloa martxan ipini eta biktimai Ertzaintzan salaketea ipinteko laguntzea emon eutseela

jakinarazo dabe. Baita gertatutakoa ikertzeko barne prozesua abiatu be.

Danon ardurea

Alkarretaratzean Noka talde feministakoak egunerokoan dagozala txertatuta matxismoaren eta sexismoaren adierazpenak "bikote edo familia harremanetan, jai giroan, produktzio kulturaletan edo lan espazioetan", eta "matxismoagaz eta andren kontrako indarkeriagaz amaitutea danon ardurea" dala goratu eben.

Arratiako Udalen Mankomunitadeak, erasoak gertatzen diranean, oso inportantea dala bistaratzea, adierazo eban "arazo publiko diralako, gizarte guztiari eragiten deustielako, eta arazo publikoak erantzun publikoak behar dituelako". Eraso salatu eta biktimai alkartasuna adierazoteaz gainera, euren intimidadearen kontrako eraso hori sufridu dabenai, indarkeria matxisteari aurre egiteko dagozan baliabideen gaineko informazioa eskeintzen deutse mankomunitadeak.

ARRATIA

Mozorroa janzteko sasoia

Erredakzioa

Zezeilaren 6an, zapatuan, desfile edota Inauteri jaiak ospatuko dabez Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurini; karnabal martitzenean, Arantzazun, Bedian eta Zeberion ospatuko dabez Aratusteak.

Diman, 17:30ean izango da mozerro desfilea. Ondoren disko-festa, sari banaketea, txokolata eta amaitzeko pintxo dastaketea Dimako tabernetan. Igorren, Udalak, Guraso Elkarreak eta Arratiko Zekorrek babajana antolatu dabe eskoletako aterpean. 12:00etan motorrak berotutako trikopotea egongo da. Bazkari ostean, jolasak eta Akerbeltzegaz erromeria. Tartean Mozorro Lehiaketeta egingo da. Zeanurini be, bazkaria izango dabe Jubiladuenean. Bertara Eurovision edo udako kantea gaien inguruko mozerroa jantzita agertuko dira

zeanurizarrak. Lemoan, inauteri festa kiroldegian antolatu dabe umeentzat batez be. 19:30etik aurrera, bariz, tabernaz taberna ibiliko da jaigiroa, musikea eta pintxoak lagunduta.

Karnabal martitzenean, Arantzazun, arrastiko bostetan kalejireia egingo dabe herritik zehar, mozerrotuta eta musika tresnakaz eta gero Tostada Lehiaketeta egongo da Kultur Gunean. Bedian, 18:30ean hasiko da herritarren mozerro desfilea. Ondoren, txokolata egongo da. Ze-

berion jaialdia ludotekan antolatuko dabe arrastiko 17:00etan.

Txitxi-burruntzia

Arratian mantenidu dira Aratuste sasoiko beste tradizino batzuk. Horreen artean, Kanporamartxo dago. Aratusteetako aurreko domekan ospatuten da Kanporamartxo lagun kuadrilak mendira joan eta txitxi-burruntziak eginaz. Dana dala, eguna baino gehiago sasoia da. Modu malguan hartzean da gurean esta eskola umeak, mendi taldeak, guraso alkarreak eta kuadrilak aratuste sasoiaren zehar batuko dira txitxi-burruntzia egin eta txorizo eta odolosteak jateko.



Olaetxe
Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

belagorri
mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzat elkagaiak
estetiziena
Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

LANDARE INBADITZAILEAK

Panpa bedarra Arratian zehar zabaltzen doa

Arratian, gero eta zabaldiago dago *Cortaderia Selloana* edo panpa bedarra. Hegoamerikako jatorrizko landare hau espezie inbaditzaile arriskutsu moduan katalogata dago. Espezie inbaditzaileak oso errez ugaltzen dira eta biodibersitatea arriskuan ipini eta hondamendi biologikoa dakarre erreportajearen egilearen arabera.

Belen Lopez Astondo

Landare inbaditzaileak urteetan zehar nekazaritzarako edo apainketarako sartutako landare exotikoak dira. Esan behar da landare exotiko guztiak ez dirala inbaditzaileak. EAEn 457 espezie aloktono (kanpoko espezie) dago katalogata. Horetatik 81 inbaditzailezat jotzen dira, tartean 21 dagoz, oso agresiboak, espazio naturalak inbadituzten dabenezalako. Errez ugaltzen dira, neurri barik zabaltzen, bertako espezieak baztertzen dabez lehian, ez daukiez harrapari edo etsairik eta kentzeako gaxak dira.

Flora zein faunako inbasio bio-

logikoak, biodibersitatea galtzearen errazoietakoa bat da, azkarren hazten doana gainera. Munduko zonalde guztiak ditu mehatxupean, baina batez be Europako zonalde heze eta epelak. Gainera Europako zona horreetan, sartzen dira espezie exotiko gehien.

Inbasio honek ez dabe alarma sozialik sortzen, eta holan hondamendi biologikoa aurrera doa eten barik eta ia igarri barik. Emoten dau adituak bakarrik kezkatzen dirala horretaz, baina danok sufriduko doguz ondorioak. Izan be, sufriduten doguz daborduko, ze dirutzak gastetan dira izurrite honeen kontrako burukan eta ez da apenas igarten.

Diru hori guztia ez da nahikoa.

Panpa bedarra

Hemen Arratian, landare inbaditzaileak aspaldi ikusi daitezke, baina atzen urteotan asko zabaltzen dira, eta modu esponenzialean hazten dirana lez, gero eta gehiago zabaltzen dira. Argi dago leku batzuetan jaun eta jaube dirala honezkerok. Landare inbaditzaileen artean *Cortaderia Selloana* edo panpa bedarra dogu deigarrienetakoa.

Landare apaingarri honek Hegoameriketara dauka jatorria eta eskualdean zabalduenetakoa da. Landarearen gangar baxoak milaka hazi egiten ditu eta haizeak,

Inbasio honek ez dabe alarma sozialik sortzen, eta holan hondamendi biologikoa aurrera doa eten barik eta ia igarri barik. Emoten dau adituak bakarrik kezkatzen dirala horretaz, baina danok sufriduko doguz ondorioak



Panpa bedarra.

Argazkiak: Belen Lopez Astondo.



Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

INAUTERIAK 16
KONTZERTU
BILTZAILA JETETIKAN

UNHOLY COVERS

OTZILAK 6
2000 TEN

BALIZOLA JATEOKA
PAGURU
MENU-BOKATOK
batzordeak

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odotzanga

Bidebarri 1, behea
48140 Igorre-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita: 900
R.P.S. 21/06

Kili-Kili Umeen denda

Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasak
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

MENDIA

II. Kolazino Mendi Eguna antolatuteko boluntario izateko izen emotea



Igazko sari banaketean.

Erredakzioa

Lehen edizinoaren arrakasta ikusita, Tiritu Kultur Elkartek II. Kolazino Mendi Eguna antolatutea ebatzi dau. Martiaren 19an izango da. Lehenengo edizinoan legez, oinezkoen martxea, bizikleta martxea eta mendi lasterketea izango dira ekintza nagusiak. Herri bazkaria eta erromeria be egingo dira.

Dana dala, antolakuntzak barrikuntza batzuk egin gura dauz ospakizuna erakargarriagoa egiteko; tartean, umeentzako lasterketea eta sari alternatiboak. Ibilbideak

be aldaketa batzuk eukiko dauz.

"Honengaitik guztiagaitik, Tiritu Kultur Elkartek gogorarazo gura dau lehenengo Kolazino Mendi Eguneko arrakasta ezingo zala posible izan Bediako herritarron laguntzarik barik, eta horregaitik animau gura zaitue oingoan be parte hartzean" dinoe Tiritukoak. Boluntario izateko zerrendak zabalik dagoz, eta apuntau gura izan ezker, liburutegian, e-posta helbide honetan kolazinokomendieguna@hotmail.com edo 635 168 114 eta 661 032 797 telefonotara deituta emon daiteke izena.

KROSA

Iraia Garciak bere Bizkaiko bosgarren txapela irabazi dau

Erredakzioa / Irati Urien

Iraia Garcia krosleriak Bizkaiko Kros txapela irabazi eban Berrizen urtailaren 17an. Daborduko Bizkaiko bost txapel eta Euskadiko bat irabazi ditu: 2006, 2013, 2014, 2015, eta 2016ko Bizkaiko txapelak eta 2009ko Euskadiko. Onditx Iturbe igorretarra be igon zan podiumera, hirugarren egin eban eta. Euskadiko Kros Txapelketan, laugarren egin eban Iraia Garciak. Taldeka, Santutxu SMK irabazi eban Euskadiko Txapelketea; hau da, Garcia eta Iturberen taldeak.

Mutilen Gazteen kategorian be zer esana emon eban arratiarrak. Izan be, 5.000 metroko distantzian bigarren gelditu zan Aitor Artaraz Bediako. Jokin Totoriak zazpigarren postua lortu eban eta hogeta bigarren egin eban Jon Rekaldek. Hiru mutilak Jon Beobide zomotzarragaz batera Zorno-

tza Atletismo Taldea osotuten dabe, taldekako sailkapenean hirugarren gelditu zana. Aitor Artarazek hamargarren, Jokin Totoriak hamabigarren eta Jon Rekaldek berrogeta bigarren egin eban Euskadikoan.

Iraia Garcia krosleri indartsua

Bizkaiko bost txapel eta Euskadiko bat izateaz gainera, Arratiako Maratoi txikia be bizpahiru bider irabazi dau Iraia Garciak. "Zoritxarrez pistako Bizkaiko Txapelketeagaz koinzididuten dau gehienetan eta oso gatxa egiten jata parte hartzea. Baina libre daukadanean egiten dot, asko gustetan jatalako. Amaren aldetik Artea, Areatza eta Igorren familia daukat eta honek plus bat emoten deutso lasterketean", dino. Lemoako udaletxean egiten dau behar eta Igorre eta Lemoako Runners taldeetako irakaslea da.

Berizko zirkuitua oso gogorra da



Iraia Garcia erdian eta Onditx Iturbe argazkiko eskoiko aldean.

mendi lasterketetako ezaugarriak ditu eta, baina holako zirkuituak ondo jatorkoz Bizkaiko txapeldunari indarra dalako bere ezaugarrietako bat. Berrizen aurten "hasikeratik asko disfrutau" ebala dino. Igaz, barriz, irabazi arren sufridu egin eban, gaixorik egoalako. Hori dala-eta, aurtengo txapelak, igazko zapore mingotsa gozotu deusala dino.

Iraia Garciaen urteko helburu nagusia Bizkaiko txapela izaten da, baina Euskadiko txapela lortzean be saiatzen da. Euskadiko urtailaren 31n izan zan Lasarten. Hipodromoan egiten da lasterketea eta hau ez da Garciaen gustukoa, laua dalako, aldapa barik. Gainera, gaixorik egon zan egun batzuk lehenago arte, kalentureagaz, eta "asko sufridu" eban Bizkaiko txapeldunak Lasarten. Hata guzti be, meritu handiko laugarren postua lortu eban.

Isidoro Hernandez durangarra da Garciaen entrenatzailea. Entrenamentuak ipini aurretik astea zelan daukan galdetzen deutso eta eginbeharrekoak kontuan hartuta ipinten dabez entrenamentuak, "batzuetan goizeko 06:00retan, beste batzuetan eguerdiko 15:30etan beharretik urtendakoan, edo 21:00etan andrakaz galapan egiteko taldeetan amaitu ondoren entrenetan dot. Gainera, zortea daukat ze aitagaz be entrenetan dot eta bera ni ondo ezetuteaz gainera, medikua da. Kontrola % 100, beraz".

Arratiako runners taldeak

Kirolaren onurak asko dirala sinistuta eta andrazkoen artean kirola bultzatu guran, 2014an galapan egiteko andra talde bat batu eban bere kabuz Zomotzan andrai "runners munduan sartzean lagunduteko". 2015eko apirilaren 14an Igorreko Udalarri idea hori gustau jakon eta martxan ipini eban talde bat. Urrietan Lemoan abiatu zan beste runners talde bat, hau be udalaren laguntzeagaz.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean

begitu

arratia ubide zeberio

13 urte eta gehiago

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkartek ateratako produktuak.
Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea

MENDIA

Bidea ekipauta, eguraldi onaren zain dagoz Txikon eta espedizinokideak

Erredakzioa

Alex Txikon lemoztarrak eta Ali "Sadpara"k jarraituten dabe Nanga Parbateko tontorra neguan zapalduko asmoagaz. Nanga Parbateko beheko kanpalekutik Igone Maizkurrenak informau ebanaren arabera, urtailaren 29an susto bat izan eben edur jausi batek Txikon azpian hartu ebanean. Ondo atera ziran horretatik espedizino kideak eta kanpalekuan egozanak baina egun batzuetan kanpalekuan geratu egin behar izan ziran edurra estabilizau arte.

Espedizinoko lanik gaxena eginda dagoala pentsetan dabe Txikon eta bere espedizinokideak. Izan be, Kinshofer ibilbideko zatirik teknikoenak ekipauta daukiez eta "baldintzak ez badira aldatzen, 6.700 metrotik tontorrera ez da ekipau beharko" Txikonen arabera. Orain artekoa ekipetako 2.500 metro soka erabili ditue, ia 200 kilo, eta 6.700 metroan hirugarren kanpalekua ipini dabe.

Orain, ea eguraldiak aurrera egiteko aukerea emoten dauan zain dagoz neguko espedizino honetako kideak.

FUTBOLA

Neskak bigarren

Ainhoa Duñabeitia

Jokatutako azken zortzi norgehiagoketatik 7 irabazi dabez eta bat bardindu. Saikapeneko bigarren postuan dagoz arratiarrak.

Urtailaren 31n jokatutako atzen partiduan, garaipena eta gol zaparradea lortu eban Arratiak. Peña

Ath. Santurtzi 1 Arratia 5 izan zan emoitzea. Aurreko astegoieneko neurketan be irabaztea lortu eben, 3 gol egin ebezan arratiarrak. Beasain euki eben aurkari. Hurrengo partidua lidertzan dagoan Gasteizko Neskak taldearen kontra jokatuko dabe Gasteizen.

Gizonezkoak barriz bardindu eta galdu egin dabez atzen partidu biak. Urtailaren 24an jokatutako partiduan lurretako euki eben aurkari eta 2-0 galdu eben. Urtailaren 30ean jokatutako partidua oster

husna bardindu eben arratiarrak Gallartaren kontra. Ondo ibili ziran arratiarrak baina puntu bakarra lortu eben. Hurrengo norgehiagokan Padura taldea izango dabe aurkari.



Naia Totorika.

Argazkia: Javi Urola.

ERRUGBIA

Zekorrak seigarren

Ainhoa Duñabeitia

Urtailaren 30ean jokatutako neurketan, atzeratuta eukien partidua, ez ziran fin ibili Zekorrak. Garaipenetik hurbil egon ziran arren, 19-27 galdu eben Arrasateren kontra. Aurreko astegoienean, jokatutako neurketan barriz irabaztea lortu eben, Arratiko Zekorrak 27 Gaztedi 12. Hurrengo partidua zezeilaren 20an jokatuko dabe.

begitu

arratia ubide zeberio


ez da debalde



"Albait gehienok apur bat emon daigun gitxi batzuk dana emon ez dagien".

Izan zeu be Begitu-laguna!

ZINE-KLUBA

**Zine italiarrari eskeiniko
deutso hurrengo zikloa
Igorreko Zine-klubak**

Kartela.

Erredakzioa

Zuzendari italiarren hiru pelikula eskeiniko ditu Igorreko Zine-klubeko 2016ko lehenengo zikloak. Zezeileko lehenengo hiru eguenetan izango da, arrastiko zortziretan. Federico Felliniren *Amacord*, Nanni Morettiren *Caro diario* eta Gianni Amelioren *Lamerica* filmak ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan.

Zezeilaren 4an, Federico Fellinik (Rimini 1920-Roma1993)

1973 urtean zuzendutako *Amacord* filmak hasiko dau zikloa. Pelikuleak, Felliniren jatorrizko urian oinarritutako fikzinozko Borgoko personajeen inguruan egiten dau berba. Hasikera baten pelikula kostunbrista bat badirudi be, ironiak, fantasiak eta esperpentuak beste dimensino bat emongo deutso filmari.

Hurrengo egunean, hilak 11, Giovanni Morettik (Brunico 1953) 1993an zuzendutako *Caro diario* pelikulea proiektatuko dabe. Film hau autobiografikoa da eta hiru pasartetan Moretik bere bizimodua islatzen dau. Pelikula honetako aktorea be Moretti bera da. Pelikula honegatz, 1994ko Cannes-eko zinemaldian, zuzendari onenaren saria lortu eban Morettik.

Hilaren 18an, Gianni Amelio (San Pietro Magisano, 1945) zuzendariaren *Lamerica* (1994) filmaren txandea izango da. Pelikula honetan, 1990eko hamarkadaren erdikaldera Albaniak bizi izan eban gatazka sozial eta ekonomiko larraren istorioa kontetan dau. Filmak, beste sari batzuen artean, lau sari lortu ebazan 1994n Venezian, tartean, zuzendari onenaren saria.

ANTZEZLANA

**Martina eta paperezko
basoa Igorreko Kultur Etxean****Martina eta paperezko basoa antzezlan.****Erredakzioa**

Zezeilaren 12an, 18:00etan, L'Horta Teatre konpainiak *Martina eta paperezko basoa* obra antzeztuko dau Igorreko Lasarte Aretoan. Eszenalekuan, apurka-apurka papelez eta kartoiz egindako uniberso bat eregiten dabe aktoreak obra poetiko honetan.

Martina kartoizko etxe baten bizi dan papelezko neskatxia da. Beti ibiltzen da berandu eskolako autobusa hartzeako dana ahaztuten dualako: liburuak, motxila... Egun baten, bere etxean koloretako txilipotioa agertzen da airean jantzen. Haregaz olgetan, etxetik urrundu eta basoan galtzean da. Orduan basoko biztanleai laguntza eskatzea ebazten dau Martinak.

Martinagatz batera ikusleak natura eta askatasuna ezetuko dabe.

ERAKUSKETEAK

**Hurrengo
geralekua
Basauri****Erredakzioa**

Zertu Kultur Elkarteak *Bilbotik Durango eta Arratiarako tranbia elektrikoa: 50 urte Arratiako tranbia barik* erakusketearen ibilbidea 2015ean Bilbon amaitutako asmoa eukan arren, zezeilaren 4tik martiaren 6ra, erakusketea

Basauriko Arizko Torretxean egongo da.

Erakusketeak arrakasta handia izan dau. Foru liburutegiak emondako dauten arabera, 59 egun egon da Bilbon eta 1356 perso-

na pasau dira Foru Liburutegitik erakusketea ikusten; hau da egunean-egunean, 30 inguru. Eta gustukoa izan dala dino Montserrat Petralanda Foru Liburutegiaren Zerbitzuko arduradunak.



"Begi bizian, begi luzean, begirada sakonean,
begirada osoan begituten beti". Gontzal Mendibil

SAN BALENDIN

Artea neurtuko dabe San Balendin egunean Eleizondon (Zeanuri)

Jon Urutxurtu

Urtero lez, aurten be San Balendin jaia ospatuko da Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenez ezetuten dan ermitearen inguruan, zezeilaren 14an, domekan, San Balendin egun berean.

Mezea 11:30ean izango da Andra Mari parrokian; meza ostean, San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan, eta jarraian ermitearen aurreko artearen neurketari ekingo deusie. Neurketearen akta sinatu eta gero, aurtengo maiordomoak, datorren urtekoari agiri-liburua eta ermitearen giltzea pasatuko deusaz. Ostean, barauskarria —urdaia, pamiatxa eta ardaoa— bananduko da bertara hurreratzen diranen

artean. Ekintza horreek herriko txistularien eta bertsolarien kantuen artean egingo dira.

Piedadearen aurrean dagoan artea, 1958 urtean landatu eben. Hurrengo urteetan, San Balendin egunean edota San Balendin eguna ospatzen zan domekan —gonbit egunean— artea neurtu egiten eben. Neurtzeaz Gorordo baserriko Zeferino Lejarreta arduratzen zan. Zeferinoren koadernoetan lehen urteetako neurketen zehetasunak aurkitu doguz; lehenengo neurketea 1959koa da, eta zera irakurri daiteke bertan: *La medida de la encina de la Piedad, en los años medidos. Grueso a la altura de 1,50: 0,18.*

Tradizino hau apurka-apurka galdu egin zan eta azken neurketea, Kandido Intxaurregak egin eban 1999an; papertxo batean zera

idatzi eban: "Piedadeko artea. 99-2-14. a 1,50 circunf.: 1,50".

Gregorio Lejarreta gogoan

Pedro Lejarzak dino 2007an hasi zirala neurtzen barriro, eta 2008an agiri-liburua zabaldu eben, bertan neurtzaileak, maiordomoak eta idazkariak sinatuz. 2008an, Piedadeko artearen neurketea hasi zanetik 50 urte betetzen ziranez, "ofizialtasuna emon gura izan geuntsan ohitura honeri". Zugatzari neurri hartzeaz Zeferino Lejarretaren semea, Gregorio Lejarreta aurduratu izan da igaz arte. Gregorio bihotzekoak jota hil egin zan igaz eta aurten neurtzaile barria bilatu beharko da. Gregorio Lejarreta gogoratze-ko ekitaldi berezi bat egingo da. Igaz hartutako neurria honako hau izan zan: 185 cm.ko perimetroa 150 cm.ko altueran, 2014an baino 2 cm. gehiago.

Bestalde, neurketa ostean, Arratiako altxorra, jokoia erosteko aukera be izango dabe Eleizondora hurreratzen diranak, han egongo da saltzeako prest jokoia egiten parte hartu dauan gaztetxo talde bat.

AGATE DEUNA

Auzoak koruz beteko dira Santa Ageda bezperan

Erredakzinoa

Aurtengo udagoien eta negu epela dala eta, lurrak ez badau neguko loaldirik egin be, urtero lez, arratiarrak makilak hartuko dabez lurra esnatuteko santa eskean. Izan be, zezeilaren 4an, Agate Deunaren bezperan Arratia, Ubide eta Zeberiko kaleak koruz beteko dira santearen koplak kantetan.

Jose Ramon Galarza zuzendari barriagaz, Arratiako Koruak bere ohiko ibilbidea egingo dau Arratia, Zornotza eta Bilbotik. Koru hau Arratiako zaharretakoa eta jente gehien biltzean dauan da. Aurten 65 urte beteko ditu eta bertan 40 kantari inguru batzean dira. Goizeko zortzirak inguruan hasita, iluntzeko bederatzit'erdia aldera arte jardungo dabe kantuan. Jasotako dirua Caritasentzat izango da.

Haxe da Arratiako Koruak egingo dauan ibilbidea:

08:45ean, Arantzazu. **09:00**etan, Dima. **09:25**ean, Igorre. **09:45**ean, Lemoa. **10:00**etan, Zornotza. **11:15**ean, Begoñako basilikea. **12:00**etan, San Anton, Erribera merkadua, Plaza Barria, Ipar Kutxa, udaletxea, BBVA, El Corte Ingles eta BBK. **13:30**ean, Bizkaiko Foru Aldundia. **13:55**ean, Guggenheim museoa. **14:30**ean, bazkaria Pizperak Txokoan. **17:00**etan, Kale



Nagusia, Arenala... **18:30**ean, San Nikolas, metroa, Donibane santuen plazatxo... **19:00**etan, Santiago katedrala, Zazpi kaleak. **20:00**etan, Arriaga aurrean agurra. **20:30**ean, Bedia. **20:45**ean, Arte. **21:00**etan, Zeanuri. **21:15**ean, Areatza.

Beste koruak

Zezeilaren 4an, Arratia, Ubide eta Zeberiko kaleak santearen omenezko koplak kantetan dabezan talde txiki zein handiz beteko dira. Eskola umeak, parrokiako koruak, abesbatzak, lagun taldeak eta kultur alkarteetakoak koplak erreperitorio aberatsa eskeiniko dabe auzunez auzune.

Santa Ageda egunaren hurrengo domekan be, zezeilak 7 aurten, Zeanuriko Santa Ageda ermitan, koru txiki batek santearen martirioa kontetan daben koplak kantauko dauz.

MUSIKEA

"Musika Bakarrean" zikloko atzen kontzertua Areatzan

Erredakzinoa

Zezeilaren 13an, 19:30ean, AKKBK antolatutako "Musika bakarrean" zikloko azken kontzertua izango da Areatzako Udal

Aretoan. Mikel Albistur oboe jotzailea eta Xabier Calzada flauta jotzailea entzuteko aukerea izango da oraingoan.

Mikel Albistur oboe irakaslea da Bilbao Musikan. Euskadiko

eta Bilboko Orkestra Sinfonikoan jotzen dau eta musika garaikideko Krater Ensemble taldeko kidea da.

Xabier Calzadak be Euskadiko Orkestra Sinfonikoan eta Bilboko Orkestra Sinfonikoan jotzen dau eta musika garaikideko Kuraia Ensemble taldeko kidea da.

Biak alkarregaz Sonar ganbara musikako haizezko boskotean jotzen dabe.

DUNBA

Animau Urdaibai ezetuten!

Areatzako LH 3ko ikasleak, Sukarrietako barnetegira joan ginan, 4 eguneko egonaldia egitera. Urdaibaiko itsasadarra landu eta ekosistema barri bat ezetu genduan.

Areatzako eskolako LH 3ko ikasleak

2015eko urri bigarrenaren 26tik 29ra Sukarrietako barnetegira joan ginan. Sukarrieta Urdaibaiko itsasadarrean kokatuta dago, Busturialdean.

Barnetegia oso handia zan. Logelak erosoak ziran eta danok batera lo egiten genduan. Kanpalkaldean futbol zelaia, saski

baloi kantxa, frontoia, igerilekuak, pinpon mahaiak eta futbolina egotzen.

Bertan beste 3 eskolagaz alkatu ginan, Markinakoakaz, Getxokoakaz eta Berritxokoakaz batera. Han eskola bakotxak proiektu bat eroan eban aurrera, guri itsasadarra proiektua suertau jakun. Ekintza desbardinak egin genduan: Padurara urtekerea, Bermeora biajea, mendira, eko-



Areatzako ikasleak.

sistemako animalia eta landareak aztertu...

Gure denpora librean tailerrak egin genduan: zeramikea, sukaldaritza, ehungintza, argazkigintza, kuadernaketea eta kosmetikea. Tailerrak sano dibertigarriak izan ziran eta han egindako gau-

zak etxera ekarri genduan.

Ekintza honeek guztiak egiteko eskoleagaz joan behar da edo udalekuetara, baina Urdaibai Biosfera Erreserba ezetutera edozein momentutan joan daiteke. Animau zaitzie eta bisitau Urdaibai, merezidu dau eta!



Urdaibai.

AGENDEA

ZEZEILAK 2 IGORRE

10:30etik 12:30era hilaren 4ra arte, Gurutze Gorriak jubiladu eta pensinodunentzako Internet ikastaroa. KZ Gunean. Kultur Etxean.

Hilaren 29ra arte, Ganzabal Mendi Taldearen argazki erakusketea *Mendirik mendi*. Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 4 ARANTZAZU

08:45ean Arratiako Korua Agate Deunaren koplak kantetan.

17:30ean, Santa Ageda abestu herriko auzoetatik, baserritar jantzita. Plazatik urtenda.

AREATZA

12:00etan, Mediku Konsultategi barriaren inaugurazio ekitaldia. Askatasuna kalea 34.

21:15ean, Arratiako Korua Agate Deunaren koplak kantetan.

ARTEA

20:45ean, Arratiako Korua Agate Deunaren koplak kantetan.

BEDIA

20:30ean, Arratiako Korua Agate Deunaren koplak kantetan.

DIMA

09:00etan, Arratiako Korua Agate Deunaren koplak kantetan.

IGORRE

09:25ean, Arratiako Korua Agate Deunaren koplak kantetan. Eskoletan.

17:00etan, Glu-glu Produkzioak-en *Txanogorritxo*. 3 eta 9 urte bitarteko umeentzako antzerkia. Lasarte Aretoan.

20:00etan, Zine-kluba, zinema italiarra *Amacord* (Fellini, 1973). Lasarte Aretoan.

LEMOA

Santa Ageda bezperako kalejireia Lemoatik, 09:45ean, udaletxean Arratiako Korua eta JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeko ikasleak; 18:30ean, udaletxetik Lemoako Korala, Arratia Musika Eskolako trikitilariakaz.

ZEANURI

21:00etan, Arratiako Korua Agate Deunaren koplak kantetan.

ZEZEILAK 5 BEDIA

17:00etan, umeentzako tailerrak Ludotekan.

IGORRE

Aratusteak. 17:00etan, musika eta jantza eskoletako aterpean. Gero txokolatea.

DIMA

19:30ean, "Etxean gura doguz" presoen aldeko kontzentrazioa. Plazan.

LEMOA

11:30ean, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta, mozorroren festa. Gaia: Lemoako Eskolako Zirkua. Kiroldegian.

ZEANURI

17:00etan, Altxorraren bila eta ostein inauterietako jaialdia Kultur Etxean; 20:00etan,



Beti oporretan liburuaren aurkezpena

Harkaitz Canoren *Beti oporretan* ipuin bildumearen aurkezpena izango da zezeilaren 15ean, 18:30ean Igorreko Kultur Etxean. Liburu honetan hamalau kontakizun dagoz, eta batzuk uda eta itsaso ondoan girotzen badira be, badagoz ohiko opor egoeretatik harago doazen kontakizunak be.

Harkaitz Canok birritan irabazi dau Euskadi Literatura Saria eta beste bitan Espainiako Kritikaren Saria. *Twist* nobeleagaz Beterriko Liburuaitamena jaso eban. Neerlanderaz, galegoz, grezieraz, ingelesez, gaztelaniaz, errusieraz, alemanez eta italieraz irakurri daitezke bere liburuak.

kantu-poteoa trikitilari, txistulari, koru eta bertso taldeagaz, frontoian hasita.

ZEZEILAK 6 AREATZA

20:00etan, Feel Acoustic The Quiet Corner-en.

DIMA

17:00etatik 17:30era, trikitilariakaz herritik ibilbidea; 17:30ean, mozorro desfilea; 18:30etik 20:00etara, disko festa Keima animazioagaz; Txokolatea; 20:00etan, mozorro sari banaketea, bakarkakoa eta taldekoa; 20:30etik aurrera inauterietako pintxo degustazioa Dimako tabernetan.

20:00etan Baltzola tabernan Unholy Covers taldearen kontzertua.

IGORRE

12:00etan triki-poteoa. 15:00etan, babajana eskoletako aterpean. 16:00etan umeentzako jolasak eskoletan. 17:30ean erromeria Akerbeltz taldeagaz, bitartean Mozorro Lehiaketea. Bazkarirako tikitak Arratiko Zekorak Rugby Tabernan salgai. Umeentzako makarroiak, solomoa eta postrea. Inazio Zubizarreta Guraso Elkarteak, Arratiko Zekorak eta Udalak antolatuta.

22:00etan, zinea *Palmeras en la nieve*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

16:00etatik 19:00etara, umeentzako inauteri festa kiroldegian Jai Batzordeak antolatuta: puzgarriak, photomaton gunea, txokolatea, musika... 19:00etan poteoa Mailuki tabernatik hasita; 20:00etan, poteoa Orkestra Elektroxaragagaz Kresala tabernatik hasita; 21:30ean, "pikoteoa" Kodigoa tabernan.

ZEANURI

Inauterietako bazkaria jubiladuen etxean. Gaia: Eurovision edo udako kantea.

ZEBERIO

10:00etan, udalak antolatutako fruta arbolak inauterietako ikastaroa doban Celestino Ajaren eskutik. Plazan.

ZEZEILAK 7 AREATZA

Parkeak antolatuta, "Areatzako alde zaharra ezagutzen" Mikel Urrizek gidatutako ibilbidea. Izena 94 673 92 79 edo gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean emon. Plaza mugatuak.

IGORRE

17:00etan, zinea *Carlitos y Snoopy*; 19:30ean *Palmeras en la nieve* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

12:00etan, mezea eta Agate Deunaren koplak Santa Ageda ermitan. Ostein barauskarria.

ZEBERIO

19:30ean, zinea *La casa de los espíritus*. Plazako ermitan.

ZEZEILAK 8

BEDIA

18:00etan, Tor Magoa ludotekan.

IGORRE

11:00etan maiatzera arte astelehen guztietan, jubiladuentzako Adimen Susperketa ikastaroa Kultur Etxean.

ZEZEILAK 9 ARANTZAZU

17:00etan, kalejireia herritik zehar, mozorrotuta eta musika tresnakaz; 18:00etan, Tostada Lehiaketea Kultur Gunean. Saria: produktu ekologikodun ozarea; 18:30ean txokolatea.

BEDIA

17:00etatik 17:30era, mozorro desfilerako izen emotea; 17:30etik 18:30era, Photocall; 18:30ean, mozorro desfilea herri mailan; 19:00etan, txokolatea.

IGORRE

Martiaren 15era arte, lmsersoaren tratamendu eta baldintzakaz Fiteroko bainuetxera joateko izena emoteko epea. Jubiladuen Txokoan.

ZEBERIO

17:00etan, Aratusteetako jaialdia ludotekan.

ZEZEILAK 10 LEMOA

Hilaren 19ra arte, Artisanu kremak ikastaroan izena emoteko epea. Udaleko Kultura Zerbitzuan.

ZEZEILAK 11 AREATZA

18:30ean, martiaren 17an Euskaldunan, Bilboko Orkresta eta Víctor Ullate jantza konpainiak eskeiniko daben ikuskizunera joateko izen emotea.

ARTEA

19:00etan, Arteko kultura dinamizetako parte-hartze prozesuaren aurkezpena Kultur Etxean.

IGORRE

20:00etan, Zine-kluba zinema italiarra *Caro diario* (Nanni Moretti, 1993).

ZEZEILAK 12 AREATZA

19:00etan, Lamino Kirol Klubaren Batzar Orokorra Udal Aretoan.

IGORRE

18:00etan, L'Horta Teatre *Martina eta paperezko basoa*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Hilaren 14ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak, mendiko eskia eta raketak Pirinioetan. Pici de la Canal Roya (2.345 m.) Peyrelue (2.435 m.).

ZEZEILAK 13 AREATZA

19:30ean, "Musika bakarrean" zikloko azken kontzertua. Mikel Albistur oboe jotzailea eta Xabier Calzada flauta jotzailearen kontzertua.

20:00etan, Lobo&Carmine The Quiet Corner-en.

IGORRE

22:00etan, zinea *Star wars el despertar de la fuerza*. Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 14

IGORRE

17:00etan, zinea *Paperezko hegazkinak*; 19:30ean, zinea *Star wars el despertar de la fuerza*. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

11:30ean, mezea Andra Mari parrokian; ostein San Balendin irudia Piedadeko ermitara prozesinoan eta artearen neurketea. Ondoren barauskarria.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Bogaboo-a eta sehaska zuria saltzean dodaz. Deitu 679 909 869 telefonora.

SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

DANERIK

APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, bakotxa aseguru eta alarmeagaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).

ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasikerea urri bigarrean! Astean ordu biko klaseak, arrastietan. Interesautaz bazagoz, animau eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra.

Telefonoa 634 438 725.

BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

IRAKASLE BILA

Ume bategaz ingelesez berba egiteko nonoren bila gabiz. Interesatuak deitu 605 755 604 telefonora.

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesatuak 649 979 115 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1
Axpe Goikoa Jatetxeak emondako txakolin kajatxoak.

Jürgen Lange (Zeberio)



2
Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Martina eta paperezko basoa* antzezlanerako.

Ainara Egiluz (Zeanuri)
Agurtzane Intxaurbe (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Edur-luma. 2.- Sendatu. Bokala.
3.- Hegatsa. Zidarra. 4.- Sodioa. Aditzari
ohikotasuna adierazoteko. 5.- Letra bat.
Sasi. 6.- Musika nota. Lora. 7.- Ezen, ze.
Tik-..., erlojuaren hotsa. 8.- Hagaitik.
Oxigenoa. 9.- Guztiz.

GOITIK BEHERA

1.- Kimikan, materia kantidadearen
banakoa. Abil. 2.- Erremina emoten
dauan landarea. Deus. 3.- Zoritzar.
Modua. 4.- Berba alkarketan,
ate. Aluminioa. Oinarrizko lau
odol taldeetako bat. 5.- Persona
izenordaina. Ohitura. 6.- Bokala.
Neurrian. Konsonantea. 7.- Nabari.

6	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
4	5	6	7	8	9	10	11	12	13
5	6	7	8	9	10	11	12	13	14
6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
8	9	10	11	12	13	14	15	16	17
9	10	11	12	13	14	15	16	17	18

Topau perretxiko mota desbardin en zazpi izen.

S	A	N	T	A	T	X	O	L	A
I	R	E	T	Z	A	R	R	I	B
O	A	T	Z	I	R	R	O	G	E
G	N	X	O	Z	O	B	E	U	R
I	D	A	K	O	Z	O	L	D	A
B	E	N	I	G	O	R	E	Z	I
E	R	P	O	A	T	X	A	R	O
L	O	I	Z	P	O	L	R	A	T
U	R	N	E	K	A	O	Z	P	E
R	G	O	B	E	G	A	L	O	Z
D	U	I	U	R	R	E	T	Z	A
I	S	A	A	T	B	A	K	U	L
N	I	Z	E	B	M	I	K	O	A
A	I	O	R	R	A	K	Z	I	B
D	E	T	X	A	L	E	K	O	N

AKI MI KO

Iman Olatu



umean moda
SEM
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 beja - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Balonak: A1, A, B77, #
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ASEGURUAK: AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ZUZENBIDE
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRATIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-porla. urroz@euskalnet.net

ALEX CARRASCOSA

"Artegintzak errealidadearen ikuspegi sistemikoa eskeintzen dau"

Alex Carrascosaren lana prozesuak erreztea da. Dinamikak edo metodologiak diseinetan ditu jenteak parte hartu dagian eraldatze prozesuetan. Bere ibilbide profesionala arte plastikoetan hasi eban eta artea eztabaida prozesuetan funtsezkoa dala eretxita, prozesuak lagunduteko metodologia bat sortu eban. Gernika Gogoratuz-en egiten dau behar eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzarako "Itsasoratze artibista", nazinoarteko konbidau eta tokiko eragile sozial eta kulturalen arteko topaketak be prestatzen dabil.

Arteko Kultura dinamizetako parte hartze prozesua berak gidatuko dau, arteaztarrak kultura kudeatzeko beste modu bat asmatuteko.

Erredakzioa

Zeintzuk dira momentu honetan esku artean daukazuzan proiektuak?

Donostia 2016rako proiektuak nire denporearen zati handi bat okupetan dau, baina gero neure kabuz be, holango parte hartze prozesuak gidatu eta erreztu egiten dodaz eta hainbat teknikari eta gizarte mailako politikari eta herriko jenteagaz nago beharrean, diseinu fasean edo interbenzino fasean.

Nik emoten dodan formakuntza U Lab edo U laborategia deitzean da, Massachussets-eko Institutuak asmatutako teknologia soziala da. Batez be eztabaida prozesuetan konzientzia sortzeako. Prozesuetan beti egoten gara bakotxa bere ikuspegitik gauzeari begiratuten eta kostetan jaku amankomuneko ikuspegira ailegatzea. Gure erresistentziengaitik edo nahiengaitik ez deusagu guztiona danari behar besteko kasu egiten. Holango teknikak laguntzen deuskue hori asmatzen, hori hobeto ikusten eta gure gogoan banakotasunera barik amankomuneko proposamen edo asmo edo gogora bideratzen.

Beste teknika batzuk be badira, azpiko gatazkak azaleratzen dabeza-

nak. Horretan formakuntza sakona nago egiten eta neure formakuntza eskeintzen dot.

Zu artegintzatik zatoz, ezta?

Bai, eta artegintzan ibilia naz urteetan eta urteetan. Gertatzen dana da oso aspalditik Latinoamerikan asko ibili nazala, hoge bider edo joan naz hara, batez be gatazken eraldaketa edo memoria historikoa edo prozesu transizionalak aztertuteko. Batez be Guatemalan, Bolivian edo Kolonbian egon naz egia, berreraikuntza eta erresilientzia prozesuak bideratzeko. Giza Eskubideak izan dira nire arlo nagusia. Gero, ikasi eta beste metodologia batzuek, arteagaz buztartu egin dot.

Artegintzak sano presentzia handia dauka alkarrizketa eta gatazka prozesuetan. Azken finean artegintzak ikuspegi sistemikoa eskeintzen dau, dana osotasun baten ulertzeko.

Hori da zuk sortutako Dia-Tekhne metodologia?

Bai, hori da. Dia-Tekhne artearen bitartez alkarrizketa da. Artea arteko, artekari moduan eta artegintzan.

Ze arte klase? Arte plastikoa bakarrik ala beste arte batzuk be bai?

Ni margolaritzatik nator, baina baita beste kanal batzuk edo ildo batzuk landuten dodaz. Gero eta gehiago,

gainera. Baita gorputza be. Antzerkia. Antzerkia edo dramaren poderea, edo gorputzaren erabilpena, nahiko fuertea da.

Euskal Herrian ez daukagu kultura handirik gure ohiko prozesuetan gorputza erabilteko. Eta oso beharrezkoa da nire ustez. Gorputza garalako. Arte bisualak be asko erabilten dodaz, ikuskatze tresna moduan, gure errealidadea hobeto ulertzeko eta prozesu sortzaileak sortzeako.

Edozein prozesutan beti dagoz fase batzuk. Lehenengoa konzientzia hartzea da eta errealidadea osotasun baten ulertzeko, oso inportantea da artegintza. Beste fase bat, alkarrizketan oinarritzen da, edo entzute aktiboan. Gero, asmatu gura dogun errealidade barriaren modelaketa egin behar da, eta modelaketa hori, arteagaz ez bada, ezin da egin.

Hau da, artegintza oso inportantea da ohiko prozesuetan, hasieran, identifiketako zein dan gure errealidadea eta gure errealidadearen mapeo bat egiteko, eta azkeneko fasean, gura dogun errealidadearen prototipo edo maketa bat egiteko. Hortan, arte bisualak funtsezkoak dira, ezinbestekoak.

Artean, Kultur Etxea berrantolatuko gura dabe besteak beste, ezta?

Artean Kultur Etxea erreklamatu edo atxakia bihurtu da proiektu hau gauzatzeko. Edozein prozesutan beti dago atxakiaren bat, beti dago motiboren bat proiektua hasteko. Artean, Kultur Etxearen beste kudeaketa mota izango litzateke. Astran sorkuntza fabrikari egin dan moduan. Astra Gemikan izan zan armagintzarako fabrika bat eta hori sormen kulturalerako fabrika sozial bihurtu zan okupazioaren ostean.

"Gogo kolektiboa

landuko dogu; jenteari

tresnak eta erremintak

emongo deusaguz;

jenteak bere kultur

errealidadearen

prototipoa egingo dau"



Prozesu askotan, atxakia bat egon arren, bistaratu egiten dira benetan dagozan azpiko gatazkak edo azpiko benetako beharrak. Artea lango herri baten, eta gure gizartearen orokorrean, polarizazioa gaintu behar dogu. Harremanetan egotearen beste kultura bat dago hor azpian, lekua eskatzen. Arteaztarrak guztien artean, kalidadezko beste harreman mota bat eregi daigun aukerea dago prozesu honen bitartez. Kultur Etxea izango da gure abiapuntua. Ez dakigu zer gertatuko dan, ez dakigu jenteak azkenean ze prototipo edo ze asmo gauzatzeko dauan.

Proiektuak lau fase daukaz. Zer egingo dozue bakotxean?

Proiektua lau fasetan banatuta dago: Gogoan, Abian, Bidean eta Artean izenekoak. Lehenengo fasean, benetako gogoan sortu behar dogu. Ikusi egin behar doguz gure erresistentziak, zeintzuk diran gaintu behar doguzan oztipoak, eta zelango estrategiak bideratu behar doguzan amankomuneko gogo horretara ailegatzeko. Perspektiba guztiz inklusiboa izango da: ezelango gogorik ezin da baztertuta geratu. Hor danok batera aurrerantza zelan egin, eta polarizazio eta erresistentziak zelan gaintu asmatuko dogu.

Abian fasean parte hartzaile guztiai emongo jakiez erremintak edo tresnak euren burua kudeatzeko. Hau da, talde eragile edo motorrak eratzeko. Horretarako neuk eskeiniko dot formakuntza berezia eta oso sinplea, jenteak talde dinamikak modu autonomoan aurrera eroan eta dinamizetako. Fase horren amaieran, kultur sistema baten prototipoagaz amaituko dogu. Dana dala, lehenago, gaien edo kezken arabera, talde batzuk eratuko dira

eta talde bakotzak bere prototipoa egingo dau.

Bidean fasean taldeak alkarbanatuko dabez prototipoak eta egingo da proba bat; gero prototipoak aurkeztuko jakiez beste arteaztarrak, ikusteko zelango erantzun edo feedbacka daukien herriarren aldetik. Beste helburu bat be badauka fase honek eta da kanpoan egon diran beste persona batzuk erakartea, danon artean osotuten joateko egin gura dan hori guztia. Bidean fasean be, feedbacka jasota, amankomuneko ipiniko dira prototipo guztiak euren erantzunak, eta proposamen bateratua egingo da.

Artean fasean, proposamen bateratua egingo da, diseinu bat kultur ekipamentuari begira, Kultur Etxeari begira baina baita kultur kaleari eta kultur plazari. Hau da, Kultur Etxearen ekipamentu fisikoa diseinatu da; baita ekintza kultural anitzagoak (kultur kalea), eta bailara osoari hedatuko diranak (kultur plaza).

Azkenengo fasean, alkarrizketa egongo da parte hartzaile eta teknikarien artean, teknikariak, ekipamentuetara begira, teknikoki zeintzuk izan behar diran inplementazioak jasoteko.

Laburbilduz, prozesu honetan gogo kolektiboa landu egingo dogu; jenteari tresnak eta erremintak emongo deusaguz; jenteak bere kultur errealidadearen prototipoa egingo dau, ez bakarrik Kultur Etxeari mugatuta, ikuspegi zabalago batez baino; hori alkarbanatuko da zuzenean parte hartzean ez daben herriarrak, eta osotasun horregaz ikusiko da zelan aplikatu hori dagoan ekipamentu fisikora teknikariaren laguntzeagaz.